

- 1 - Piarresek maite zuena bere etxea?
- 2 - Nola deitu zuten Piarresen etxea - Zestako?
- 3 - Aipa zargitue Aitaxoren arken ornak -

II

Etxea

Bai zinez maite zutela guziek beren etxea, zinez maite zuela Piarresek bere Oihanaldea! Han baizik ez zuen onik. Kontraban- ar zadien edo oraino lanean, etxearen zat ari zen, etxe hura zuen bethi gogoan. Doi doia zakien bere deihura: Piarres Oihanal- dekoa zen, eta hori zitzaion, bertze gehiagokorik gabe. Mendixka baten kaskoa baizik ez zen lehenik Oihanaldea. Bainan, gero, emeki, kaskoari sorbaldak eman ziozkaten eta bulharrak, hemen larre bat uzkailez, ¹ bardinduz han pentoka zerbeit, arbola zaharrak errotik atheraz, mahasti-aihenak aldapari gora herrestan iganaraziz.

Hots, erresuma ttiki baten errege hil zitzaioten Aitaxo. Bezperan oraino, azken aldikotz ohean etzan baino lehen, bere erresumaren ingurua sukar-daldara batean egin zuen, lanean ihartu bere esku maiteekin fereka bat emaiten ziotela uztaleko ogi-buru pisueri. Ikusten zituen gauzak oro bere begien zola-zolan bertze mundurat ereman nahi balitu bezela, guzietan beha eta beha egon zen luzaz, begi hek ezin asez. Heian gero sartu zelarik, etzanik han zauden behiek, maitetasunez, marruma gozo bat egin zioten, beren ga- theak inharrosiz... etxeko xakurra eskuperat ethorri zitzaion hura ere, fereka baten galdez, eta baratzeke loreen aintzinean burrunbaz betherik sumatzen zituen kosoineri² agur bat —azkena— erranik, hotz-ikara batean sartu zen etxean lehenik, eta gero... ohean. Egun bat bethetzen den bezala, betha zuen aitaxok bere hizi luzea; eta haren aita azken aldikotz luzatu zen ohe berean, ohe-zerutik beheiti heldu ziren oihal gorri beren artean, luzatu zen aitaxo, bethitik maitatu zituen Jainko handiaren eta Ama onarenganat joaiteko...

III ADITZ IKASKUNTZA

31. ar zadien 32. zitzaion
33. ziozkaten 34. emaiten ziotela.
31 IZAN. Subjontif. ~~Present~~ Impf

Ni izan mindadin = que je fusse
Hi — — hindadin = que tu fusses
Zu — — zintezzen = que vous fussiez
Hura — — zadin = qu'il fût
Gu — — gintezzen = que nous fussions
Zuek — — zintezten = que vous fussiez
Heiek — — zitezzen = qu'ils fussent

32. IZAN. Régime indirect. Ind. Imparfait

Zu zinen = Vous étiez
Zu zintzaizkiban = vous m'étiez
zintzaizkion = vous lui étiez
zintzaizkigun = vous nous étiez
zintzaizkien = vous leur étiez
Hura zen = Il était
Hura zitzaitan = il m'était
zitzaizun = il vous était
zitzaion = il lui était
zitzaizun = il nous était
zitzaizuen = il vous était
zitzaien = il leur était

33. UKAN. Conj. à dble cpt. Ind. Imparfait

O. P. Hari = à lui C. I. S.

Nik nizkion = nizkan = je les lui avais
Zuk nizkion = nizokan = vous les lui aviez
Harek nizkion = nizokan = il les lui avait
Guk gimizkion = gimizkan = nous les lui avions
Zuek gimizkion = gimizkan = vous les lui aviez
Heiek nizkion = nizokan = ils les lui avaient